



ARIAK ASTRONAUTA IZAN NAHI DU



Orain dela urte asko Aria izeneko neska bat Nicaraguako Totogalpa herrian bizi zen bere aitonarekin baserri batean. Baserria oso txikia zen eta ez zeuzkan baserri gehiago inguruan. Baserritik gertu oihan sakon eta berde bat zegoen. Baserriaren atzean ibai zabal bat zegoen. Ibaia sugez beteta zegoen. Ariak amets bat zeukan: astronauta izatea.



Aitonak bere bilobari unibertsoari buruzko liburu bat oparitu zion. Bertan izarrak planetak, sateliteak ... agertzen ziren. Berak asko ikasi zuen eta unibertsoari buruz gehiago ikasi nahi zuen. Gauetan zeruari begira egoten zen eta izarrak zenbatzen zituen.



Astronauta izateko oihanetik irten behar zuen. Oihanetik irtetzeko oztopoak gainditu behar zituen. Lehenengo oztopoa ibaia zen. Ibaia oso zabala zen eta sugez beteta zegoen. Aria oso azkarra zen eta egurrezko txalupa bat egin zuen. Txalupa hartu zuen eta arraunean hasi zen. Suge batek eraso egin zion, baina Ariak arraun batekin kolpe bat eman zion sugeari eta sugea hil egin zen. Ariak ibaia zeharkatu zuen.



Ibaitik irten zenean oinez jarraitu zuen. Bat batean, bigarren oztopoa agertu zen: Ariaren aurrean “El Cerro de las Tres Señoritas” mendilerroa zegoen. Mendi altuak ziren. Gainera, behe lainoa zegoen eta bidea galdu egin zuen. Lotan zegoela konturatu zen lainoa desagertu egin zela eta izarrak ikusten ziren. Ipar Izarra ikusi zuen eta honi jarraituz, mendi puntara iritsi zen. Momentu horretatik oso erreza izan zen. Aria Managuara heldu zen eta ikasten hasi zen. Urte batzuk beranduago astronauta izan zen.

“EL CERRO DE LAS TRES SEÑORITAS”

